



TOLOSAKO
UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak Oriaburu eraikineko areto nagusia aldi baterako erabiltzeko araudia idatzi aurreko kontsulta publikoa bideratzeko.

Aurrekariak

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI.

Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berrikuntza batzuk sartu dizkio aurreko erregulazioari, helburu nagusi izanik herritarren parte-hartzea handitzea arauak prestatzeko prozeduran.

Hala, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honela dio artikulua horrek:

133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko araudiaren eragina jaso dezaketen subjektuek eta ordezkari gehieneko erakundeek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia ote den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Oriaburu eraikineko areto nagusia aldi baterako erabiltzeko araudia idatzi aurreko kontsulta publikoa bideratzea. Legeak ezarritako prozedura betetzeko, alde aurreko kontsulta publikoa egingo du, araudia onartu aurretik.

Hala, araudiaren zirriborroa egin du Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Sustapena azpisailak, eta ikusgai dago Tolosako Udalaren webgunean. Orain, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, nahi izanez gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

- Helbide elektronikoa honetara idatzita: enplegua@tolosa.eus
- Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

Horretarako, 15 egun natural izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik **kontatzen hasita**.

Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Tolosako Udala "Oriaburu" deituriko eraikinaren jabea da. Eraikin hori tokiko jabari publikoari atxikita dago, eta, zehazki, Udalaren eskumenerako honako zerbitzuei: garapen ekonomiko eta sozialari, eta tokiko enplegu-plan edo -politikei.

Eraikinak 200 m²-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta beheko solairua, lehen solairu altua eta ganbara-solairua ditu. Sotoa du solairuaren zati batean.



TOLOSAKO
UDALA

Gaur egun, beheko solairuaren zati bat Tolosa&co merkatarien elkarteari lagata dago; lehen solairua, berriz, Udaleko *coworkingerako* da, eta ekainetik, Udaleko Garapen Ekonomikoko azpisailaren bulegoa ere hemen dago. Hiru erakunde horiek eraikineko areto nagusiaren erabilera partekatzen dute. Aretoak, gehienez ere, 25 lagunentzako lekua du, eta prestakuntza-jarduerak nahiz eraikinaren jarduera nagusiarekin lotura duten beste erabilera batzuk sustatzen ditu.

Araudiaren helburua

Oriaburu eraikineko areto nagusia aldi baterako erabiltzeko araudiaren helburua da Udaleko Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren azpisailak, *coworking*-programan parte hartzen duten kideek, Tolosa&Co elkartek, eta beste eragile sozioekonomikoek segurtasunaren eta berme juridikoaren aldetik duten beharrari erantzutea. Tolosako Udalak, araudi honen bidez, espazio horren erabilera arautu eta sustatu nahi du.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

- 1.-Barne-instrukzioa edo jarraibidea: ez, hirugarrenen aurrean ez duelako eraginik sortzen.
- 2.-Erregulazio eza: ez, herritarren parte-hartzea modu eraginkorrean egin behar delako.

Tolosan, 2021eko irailaren 24an

BEGOÑA TOLOSA MENDIA

Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enpleguaren Sustapeneko zinegotzi delegatua